



“Hobetu beharreko helburua: amen Osasuna” testuarekin egin beharreko lana

Azaroko infografiak hainbat herrialdeetako **amen hilkortasun-tasa** erakusten digu. Herrialde horiek giza garapenaren indizearen (**GGI**) arabera multzokatuta daude. Tasa horrek erakusten digu zenbat emakume hiltzen diren haurdunaldiarekin lotutako arazoengatik, bizirik jaiotzen diren 100.000 pertsonako. Kasu honetan, grafikoan gauzak argiago ikustearren, zifrak zati 14 egin ditugu (hilkortasun txikiena, giza garapenaren indize oso altua duten herrialdeetako); hortaz, zifrak berezkoak baino askoz baxuagoak dira.

Egin ikasleekin sei talde. Eman talde bakoitzari eranskinean agertzen den testuaren fotokopia bat, eta irakur dezatela.

Hiruzpalau ideia atera behar dituzte testutik, edozein arrazoirengatik arreta erakarri dietenak: harrigarriak direlako, deigarriak, kezkarriak, samingarriak, etab. Informazioa bilatu eta zabaldu ere egin dezakete.

Gero, bateratu egingo dugu lana. Talde bakoitzetik ikasle bat zutituko da, taldean jaso duten ideia gainerakoei azaltzeko. Lehen txandan ideia bakar bat esan behar dute, talde guztiek izan dezaten adierazteko aukera. Talde bakoitzak aipatutako ideia arbelean idatziko dugu.

Ondoren, gaiaren inguruan hitz egiteko aukera emango diegu, nahi duenak nahi duena esan dezan, garrantzitsuena edo deigarriena iruditu zaionari buruz.



Eranskina

HOBETU BEHARREKO HELBURUA: AMEN OSASUNA

Osasuntsu egotea ez da gaixotasunik ez izatea bakarrik. Osasuna oso kontzeptu zabala da eta hainbat alderdi biltzen ditu: bizitzeko modua, gizarte jakin bateko talde bateko kide izatea... Horrek hainbat elementu eskatzen ditu:

- Osasun-zerbitzuak (sendagileak, osasun-zentroak, sendagaiak...)
- Elikagai egokiak eta kopuru egokian.
- Edateko ura eta saneamendua.
- Hezkuntza.
- Aisia eta kultura gozatzeko gaitasuna eta aukerak.
- Pertsonari arlo guztietan (fisikoan, kulturalen eta espiritualean) garatzeko aukera emango dion ingurunea.

Osasuna eta emakumea

Herrialderik behartsuenetan, emakumeek ez dauzkate elementu horietako asko. Eta, horrez gain, amatasunari lotutako arazoak dauzkate. Minuturo, munduan emakume bat hiltzen da haurdunaldiarekin lotutako arazoengatik; urtean milioi erdi emakume baino gehiago, beraz. Eta hiltzen den emakume bakoitzeko, hogeita hamarrek gaixotasun larriak dauzkate.

Horren zergatiak hainbat dira eta askotan elkarri lotuta daude, baina nolabait zehaztearren bi multzo handitan bana ditzakegu:

A- Biologikoak edo medikoak: 15 eta 49 urte bitarteko emakume gehienak haurdunaldian eta erditzean gertatzen diren arazoengatik hiltzen dira. Hainbeste emakume hiltzen dira osasun-arreta kaskarra jasotzen dutelako eta ez dutelako erditzean laguntza egokia jasotzen. Horregatik, emakumeen heriotzen % 99 garapenean dauden herrialdeetan gertatzen dira.

Arazo horiek are larriago bihurtzen dira herrialde askotan, arlo ugarritan dauzkaten gabeziak direla eta:

- **Osasun-sistema ahulak:** Landa-eremuetan eta hirietako inguru pobreetan, oso aukera gutxi izaten dituzte osasun-zerbitzu egokiak jasotzeko. Faktore garrantzitsua da hori, zeren horrek amen eta haurren hilkortasun-tasak handiagoak izatea eragin baitezake; batez ere, erditzeko unean arazoak sortzen badira.
- **Azpiegitura desegokiak.** Hasteko eta behin, garraioari dagozkionak; garraio-azpiegiturarik ez egotean, emakume askok ezin dute osasun-zerbitzuetara iritsi, adibidez erditzean larrialdiren bat gertatzean. Bestetik, oinarrizko zerbitzuak eskuratzeko ezintasuna dago; ura eta saneamenduaren kasuan, adibidez. Ura eta saneamendua izateko eskubidea giza eskubide bat da, bizi ahal izateko funtsezko baldintza da, eta amen osasuna hobetzeko giltzetako bat ere bada.
- **Sendagileen gabezia.** Maila guztietan, arazo larria da hori. Sendagilerik ez dagoen lekuetan, ezin dira haurdunaldian larritu egiten diren gaixotasunak behar bezala tratatu, eta askotan erditzeetan emagin tradizionalak egoten dira, eta haietako askok ez daukate kasu zailtan jarduteko prestakuntzarik.
- **Hiesa eta sexuaren bidez transmititzen diren gaixotasunak.** Emakumeek, beren ezaugarri biologikoengatik, gizonek baino bost aldiz gehiago izaten dituzte halako gaixotasunak. Infektatuta dauden emakumeek beren seme-alabei transmititzen diete gaixotasuna. Halako gaixotasunek, gainera, eragozpenak sor ditzakete haurdunaldian eta erditzean, eta ama asko hil egiten dira.



Eranskina

- **Sozialak eta kulturalak:**

- **Emakumeen berdintasun eza.** Hain zuzen ere hori da emakumeek osasuna izateko eskubidea betetzeko duten eragozpen nagusietako bat. Emakume askok senarraren edo ahaide politikoen baimena behar izaten dute osasun-zentrora joateko, eta askotan ezin izan dute seme-alabak izateari buruzko erabakia hartu. Neska gutxiago joaten dira eskolara: hor ere ikusten da diskriminazioa. Oro har, esan daiteke hezkuntzak hobetu egiten duela amen osasun-egoera:
 - Eskolara joaten diren neskak beranduago ezkontzen dira, normalean haurdunaldi gutxiago izaten dituzte, edo tarte handiagoa izaten dute haurdunaldi batetik bestera, eta, aukera duten neurrian, osasun-laguntza jasotzen dute erditzean.
 - Hezkuntza jaso duten emakumeek hobetu egiten dute beren etxeko bizikaltatea, gehiago dakitelako nola zaindu familiaren osasuna eta elikadura. Emakumeek hezkuntza jasotzen duten urte bakoitzeko, % 5 eta 10 artean murrizten da 5 urtetik beherako haurren hilkortasun-tasa.
- **Elikadura:** Desberdinkeria onduz, elikagaiak ez dira nesken eta mutilen artean berdin banatzen; askotan, emakumeei eta neskei okerrago ematen diete jaten mutilei baino. Emakume askok, behar bezala elikatuta ez egotean, arrisku handiagoak izaten dituzte haurdunaldian eta erditzean.
- **Ugalkortasun-tasa altuak:** Giza garapen baxuko herrialdeetan, emakume bakoitzak bost seme-alaba izaten ditu batez beste. Seme-alaba asko izaten dituzten emakumeak ahulago geratzen dira eta gaixo egoteko aukera gehiago izaten dituzte.
Amen gaztetasuna: Herrialde behartsuetan ama izatearekin lotuta dauden arazo guztiak larriago bihurtzen dira amak oso neska gazteak direnean. Neskak familiarentzat hondamendi ekonomiko bihurtzen direnean, ezkonarazi egiten dituzte. Eta neskek, hain goiz ezkontzean, oso gazterik haurdun geratzeko arriskua izaten dute.

Amen hilkortasuna

Bilatu Interneten munduko herrialdeak GGIren arabera sailkatuta erakusten dituen mapa:

<http://gestion.manosunidas.org/HtmlRes/Educacion/Files/Mapa%20IDH.pdf>

Azaldu ikasleei zer den herrialdeak sailkatzeko erabiltzen den GGI kontzeptua. Sailkapen hori kontuan hartuta, erakutsi infografia, eta, aurreko jarduera aintzat hartuta, hausnarketa egin, infografiak erakusten digunaren inguruan:

- Lau herrialde multzoetako amen hilkortasun-indizeak ikustean, zer pentsatzen duzue? Zer ondorio atera dezakegu amen hilkortasunak munduan duen banaketari buruz?
- Hausnartu esaldi honen inguruan: «*Pobrezia arrisku-faktore bat da emakumeentzat*».
- Inolako loturarik ikusten al duzue grafiko honetako zifren eta iraileko infografiako genero-desberdintasunaren indizeko datuen artean?